2022-2023 bitartean enpleguan (+% 2,3) zein fakturazioan (+% 5,3) izandako bilakaera positiboa lotuta dago industria-jardueraren hazkunde nabarmenarekin, 2022an hasitako joera positiboarekin jarraitzen baitu. Izan ere, urte arteko fakturazioa % 9tik gorakoa izan da, eta, ondorioz, enplegua % 2,7 hazi da. Aldiz, Euskadiko industrian, apur bat murriztu da okupatutako biztanleria 2022 eta 2023 artean (-% 0,1).


Eraikuntzak ere bere hedapen-joerarekin jarraitzen du eta fakturazioan izandako hazkundera % 5etik gorakoa izan da; urte arteko enpleguaren hazkundera berriz, % 2 ingurukoa.

Aldiz, zerbitzuek % 2,5eko kontratazioa izan dute fakturazioan, baina horrek ez du enplegua murriztu, ia puntu bateko aurrerapena izan baita 2022arekin alderatuta.

Lurraldeari dagokionez, Gipuzkoan izandako aurrerapena da adierazgarriena (% 7 fakturazioan eta % 3 inguru enpleguan). Bizkaian hazkunderak neurritsuagoak izan dira (% 0,4 bai enpleguan, bai fakturazioan) eta Araban, fakturazio-mailari eutsi dio eta % 2 egin du gora enpleguak.

Forma juridikoari dagokionez, lan-sozietateek fakturazioan (% 4) zein enpleguan (% 3,5 SALetan eta % 1,6 SLLetan) izandako aurrerapena nabarmentzen da. Bestalde, kooperatiben aurrerapen orokorra % 3,6koa izango litzateke fakturazioan eta % 1,7koa enpleguan.

FAKTURAZIOAREN BILAKAERA ETA AURREIKUSITAKO ENPLEGUA (Lurralde historikoa, jarduera-sektorea eta forma juridikoa). 2022-2023. (GEFK)



### III.- GIZARTE-EKONOMIAN PARTE HARTZEA (GEFK)


Gizarte-ekonomiako enpresetako zuzendaritza-organoetan bazkideek duten parte-hartzea da oraindik ere Euskadiko enpresa-ehundura hori definitzen duen zutabeetako bat.

Parte-hartze mailaren batez besteko balorazioa (% 77,5) aurreko edizioetakoaren antzekoa da.


Bazkideek enpresaren zuzendaritza-organoetan, eta batez ere Batzar Orokorrean, duten parte-hartzearen maila oso positiboa da. Gizarte-ekonomiako enpresen % 77,5entzat oso aberasgarria edo behintzat egokia da bazkideek enpresetan parte hartzea. Zerbitzuen kasuan, balorazio hori % 79,3koa da.

Soilik kasuen % 3,2an baloratu dute parte-hartze hori “eskasa” dela. Halaber, enpresa horien artean, % 37,6k neurriak hartu ditu parte-hartzea hobetzeko. Askotariko neurriak hartu dituzte, hurrengo grafikoan ikus daitekeen moduan: deialdi pertsonalizatuak, mezu informatiboak bidaltzea, pizgarrien eskaintza, etab.

BAZKIDEEK ZUZENDARITZA-ORGANOETAN ETA BATZARREAN DUTEN PARTE-HARTZE MAILAREN BALORAZIOA (%). 2022



ANALISIA, ARLOZ ARLOKO JARDUERAREN ARABERA. BAZKIDEEK ZUZENDARITZA-ORGANOETAN ETA BATZARREAN DUTEN PARTE-HARTZE MAILAREN BALORAZIOA (%). 2022





#### IV.- EMAKUMEEN ORDEZKARITZA, GENERO-ARRAKALA, KONTZILIAZIO-NEURRIAK ETA GIZARTE-ERANTZUKIZUNEN NEURRIAK GIZARTE-EKONOMIAN (GEFK)

Emakumeek gizarte-ekonomian duten presentziarik handiena gizarte-zerbitzuetan dago (% 64,4) eta egun oraindik askoz ere mugatuagoa da presentzia industrian (% 23,7). Hala, gizarte-ekonomiako ordezkariak Euskadiko ekonomia tertziariokoa (% 58,1) eta industrialekoa (% 21,8) baino handiagoa da.

2022an EAEko enpresa-ehunduran izandako soldata-arrakala (% 18,5) handia den arren, Euskadikoa baino txikiagoa da (% 22,6)<sup>7</sup>.

Emakumeek kontseilu errektorean (% 34,7), kudeaketa-postuetan (% 34,1) eta presidentetzan (% 32,5) duten presentzia oso mugatua da, baina, hala ere, 2020ko eta aurreko urteetako mailak hobetu egin dira eta goranzko joera dago.

Emakumeen enpleguak Gizarte Ekonomian duen pisua % 45,4koa da. Pisu erlatibo hori Euskadiko ekonomia guztiko pisua baino 2,2 puntu txikiagoa da.

Hala ere, desberdintasun hori lotuta dago sektore tertziarioak Gizarte Ekonomian duen pisu txikiagoarekin; izan ere, jakina den moduan, sektore hori oso feminizatuta dago eta, kontrara, industriak pisu handiagoa du Gizarte Ekonomian Euskadiko ekonomiari dagokionez.

Horregatik, emakumeek Gizarte Ekonomian duten pisua Euskadiko ekonomia guztiarekin sektoreka alderatuz gero, Gizarte Ekonomia askoz feminizatuago dago, bai zerbitzuen sektorean, bai industrian.

Hala, 2022an, Gizarte Ekonomiako zerbitzuen sektorean enplegatutako pertsonen % 64,4 emakumezkoak dira, Euskadiko ekonomia guztian berriz, % 58,1. Industrian, Gizarte Ekonomian lan egiten duten pertsonen % 23,7 dira emakumeak, Euskadiko industria guztian dagoen emakumeen ordezkariak baino ehuneko 1,9 puntu gehiago (% 21,8).

GIZARTE EKONOMIAN JARDUERAREN ARLOZ ARLOKO BANAKETA, SEXUAREN ARABERA (% bertikalak). 2022

	GUZTIRA	Lehen sektorea	Industria	Eraikuntza	Zerbitzuak
Gizonak	54,6	69,9	76,3	90,3	35,6
Emakumeak	45,4	30,1	23,7	9,7	64,4

EAE-KO EKONOMIAN JARDUERAREN ARLOZ ARLOKO BANAKETA, SEXUAREN ARABERA (% bertikalak). 2022

	GUZTIRA	Lehen sektorea	Industria	Eraikuntza	Zerbitzuak
Gizonak	52,4	79,5	78,3	87,7	41,9
Emakumeak	47,6	19,3	21,8	12,1	58,1

Iturria: Geuk egina, EUSTATetik abiatuta. Biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkesta, 2022

<sup>7</sup> "Soldata Arrakala Euskal Autonomia Erkidegoan" Txostena (2021eko martxoa) Emakunde –Emakumearen Euskal Erakundea.

Euskadiko Gizarte Ekonomia osatzen duten enpresen forma juridikoaren arabera emakumeek duten pisuari dagokionez, kooperatibetan presentzia nabarmena dute emakumeek, enplegu guztiaren % 47,4. Aldiz, lan-sozietateetan duten pisu erlatiboa askoz ere txikiagoa da.


FORMA JURIDIKOAREN ARABERAKO BANAKETA, SEXUA KONTUAN HARTUTA (% bertikalak). 2022

	<b>GUZTIRA</b>	<b>Kooperatibak</b>	<b>SALak</b>	<b>SLLak</b>
Gizonak	% 54,6	% 52,6	% 77,3	% 67,8
Emakumeak	% 45,4	% 47,5	% 22,7	% 32,2

Gizarte Ekonomian, emakumeen eta gizonen arteko soldata-arrakala, 2022. urtean, % 18,5ko ratioan kokatu zen. Arrakala horrek, nolana ere, EAEko lan-merkatuaren batez besteko ratioaren azpitik kokatzen du gizarte-ekonomia, Emakundek 2020an kalkulaturakoaren arabera: % 22,6.<sup>8</sup>

Arloz arloko jardueraren arabera, euskal gizarte-ekonomiaren soldata-arrakala nabarmenagoa izango litzateke zerbitzuetan (% 20,1), eta konparatiboki, txikiagoa industrian (% 10,8).

SOLDATA ARRAKALA GIZARTE-EKONOMIAN, ARLOZ ARLOKO JARDUERAREN ARABERA, 2022 (%)



Emakumeek zuzendaritza- eta gobernu-organoetan duten presentziari erreparatuz, ordezkari langileen artean dutena baino txikiagoa da oraindik ere. Hala, 2022an, kudeaketa-postuen % 34 okupatzen dituzte emakumeek (2020an baino ehuneko 2,2 puntu gehiago) eta enpresen presidentetzen % 32,5 (2020an baino ehuneko 0,6 puntu gehiago).

Hala ere, emakumeek Euskadiko gizarte-ekonomiako kudeaketa-presidentetza postuetan duten ordezkari Euskadiko biztanleria okupatu guztiarena baino handiagoa da, emakumeek “zuzendari eta kudeatzaile” postuetan duten presentzia % 31koa baita<sup>9</sup>.

GIZARTE EKONOMIAN ZUZENDARITZAKO LANPOSTUEN BANAKETA, SEXUAREN ARABERA (% bertikalak). 2022

	<b>Presidentetza</b>	<b>Gerentzia</b>
Gizonak	% 67,5	% 65,9
Emakumeak	% 32,5	% 34,1

<sup>8</sup> “Soldata Arrakala Euskal Autonomia Erkidegoan” Txostena (2021eko martxoa) Emakunde –Emakumearen Euskal Erakundea.

<sup>9</sup> 2022ko Kopuruen Txostena. Euskadiko Emakumeak eta Gizonak. Emakunde





Hala ere, ordezkariak hori oso desberdina da jarduera-sektoreen arabera. Enpresa tertziarioetan emakumeek presentzia handiagoa dute kudeaketa- eta presidentetza-postuetan eta 2022an orekatua izan da presentzia hori (% 44,9 kudeaketa-postuetan eta % 43,5 presidentetza-postuetan).

Industrian, emakumeek kudeaketa- eta presidentetza-postuetan duten presentzia txikiagoa da emakumeek plantilla guztietan duten presentzia baino; izan ere, hamar zuzendaritza- eta kudeaketa-postutatik bitan bakarrik daude emakumeak. Azkenik, eraikuntza-sektorean, % 6koa da emakumeek lanpostu horietan duten presentzia.

ZUZENDARITZAKO LANPOSTUEN BANAKETA GIZARTE- EKONOMIAKO ARLOZ ARLOKO JARDUERAREN ETA SEXUAREN ARABERA (% bertikalak). 2022

	Presidentetza	Gerentzia
<b>Industria</b>		
Gizonak	% 80,2	% 79,4
Emakumeak	% 19,8	% 20,6
<b>Eraikuntza</b>		
Gizonak	% 93,2	% 93,4
Emakumeak	% 6,8	% 6,6
<b>Zerbitzuak</b>		
Gizonak	% 56,5	% 55,1
Emakumeak	% 43,5	% 44,9

Halaber, enpresen forma juridikoaren arabera, kooperatibetan apur bat handiagoa da emakumeek zuzendaritza-postuetan eta kontseilu errektoretan duten presentzia (% 33,6 presidentetza-postuetan eta % 35,4 kudeaketa-postuetan).

Lan-sozietateetan, emakumeek presentzia txikiagoa dute kudeaketa- eta presidentetza-postuetan, bai SLLen kasuan, bai, batez ere, SALetan: % 24koa da presentzia presidentetza-postuetan eta % 23,2koa kudeaketa-postuetan.

ZUZENDARITZAKO LANPOSTUEN BANAKETA, FORMA JURIDIKOAREN ETA SEXUAREN ARABERA (% bertikalak). 2022

	Presidentetza	Gerentzia
<b>S. KOOP</b>		
Gizonak	% 66,3	% 64,5
Emakumeak	% 33,6	% 35,4
<b>SALak</b>		
Gizonak	% 75,9	% 76,7
Emakumeak	% 24,0	% 23,2
<b>SLLak</b>		
Gizonak	% 70,2	% 69,2
Emakumeak	% 29,8	% 30,8

Antzeko emaitza ikus daiteke emakumeek kontseilu errektoretan duten presentzia aztertzeke garaian. Kontseilu errektore bateko hiru kideetik bat emakumea da eta zerbitzuen sektorea nabarmentzen da batik bat, handiagoa baita bertan emakumeen presentzia: kontseilu errektoretako kide guztien % 43 inguru.

Gainerako jarduera-sektoreetan, emakumeek organo errektoreetan duten presentzia askoz ere txikiagoa da.

Bilakaerari dagokionez, joera aurrerakoia hauteman daiteke, 2020an izandako "geldialdia" berraktibatuz (2010: % 24,5; 2014: % 27,6; 2016: % 29,7; 2018: % 33,6; 2020: % 33,4; 2022: % 34,7).

ARTEZKARITZA KONTSEILUKO KIDEEEN BANAKETA, SEXUAREN ETA JARDUERA-SEKTOREAREN ARABERA (% bertikalak). 2022

	Kontseilua, OROTARA	Lehen sektorea	Industria	Eraikuntza	Zerbitzuak
Gizonak	% 65,3	% 73,7	% 74,8	% 90,1	% 57,1
Emakumeak	% 34,7	% 26,3	% 25,2	% 9,9	% 42,9

Azken urteotan, geroz eta berdintasun-plan gehiago egin dira enpresetan, bereziki soldatapeko 50 enplegu baino gehiago dituzten enpresetan, legediak behartu egiten baititu pixkanaka plan horiek txertatzera.

Hala, 2022an, esanguratsua da berdintasun-plana duten enpresen proportzioa. Logikoa den moduan, proportzio hori nabarmen igo da dimentsiorik handiena duten enpresen artean. Horrela, enpresen baliabideek eta arauen aplikazioak zehazten dute erakundeen tamaina zenbat eta handiagoa izan berdintasun-planak gero eta gehiago agertzea. 2022an Berdintasun Plana zuten enpresen artean, % 35,5ek REGCON plataforman zuten erregistratuta.

Kontuan izan behar da berdintasun-planak egiteko araudiak ezartzen duen derrigortasuna soldatapeko enpleguari soilik aplikatzen zaiola eta ez sozietarioari; hortaz, adierazgarria da hori kooperatiben kasuan bereziki, soilik soldatapeko 50 langile baino gehiago dituztenak baitaude derrigortuta plan horiek egitera.


BERDINTASUN PLANA DUTEN ENPRESAK. 2020-2022 (%)

	GUZTIRA	Gehienez 5 enplegu	6 eta 15 artean	16 eta 50 artean	51 eta 100 artean	101 eta 200 artean	201 eta 500 artean	500 enplegu baino gehiago
2020	12,8	6,1	12,4	25,5	47,8	62,5	91,3	80,9
2022	16,9	9,5	15,6	33,6	70,7	81,8	67,9	66,7

Halaber, gero eta kontziliazio-neurri gehiago aplikatzen dira Gizarte Ekonomiako enpresetan: ia erdiek (% 45) ordutegi malgutasuna aplikatu dute 2022an (2020an baino ehuneko 1,6 puntu gehiago), % 30 inguruk telelana (2020an baino ehuneko 1,1 puntu gehiago) eta lau enpresatik batek lanaldi-murrizketa.



2020 ETA 2022URTEETAN EZARRITAKO KONTZILIAZIO-NEURRIAK ETA GIZARTE-ERANTZUKIZUNA KUDEATZEKO FORMULAK (%).



Adierazgarria da mikroenpresek ere hein handi batean aplikatzen dituztela neurri mota horiek. 5 enplegutik beherako enpresen % 41ek aplikatzen ditu ordutegi-malgutasuna eta lanaldi murriztua, eta % 26k telelana.

Nolanahi ere, ehuneko horiek igo egiten dira enpresen tamaina handitu ahala; hortaz, 16 enplegatutik aurrera, enpresa gehienek aplikatzen dute ordutegi-malgutasuna, lanaldi murriztua eta telelana.

ENPRESAREN TAMAINAREN ARABERAKO AZTERKETA KONTZILIAZIO NEURRIAK ETA GIZARTE ERANTZUKIZUNA KUDEATZEKO AZKEN BI URTEETAN EZARRITAKO FORMULAK (%). 2022

	GUZTIRA	Gehienez 5 enplegu	6 eta 15 artean	16 eta 50 artean	51 eta 100 artean	101 eta 200 artean	201 eta 500 artean	500 enplegu baino gehiago
Ordutegi-malgutasuna	45,0	41,5	48,2	59,3	51,2	55,6	56,2	61,6
Telelana	29,7	26,1	29,3	49,2	34,7	47	62,1	42,6
Lanaldi murriztua	24,6	18,2	27,6	47,9	48,5	58,3	56,2	48,6
Enpresa-balioetan eta EGEN oinarritutako prestakuntza espezifikoa.	7,5	5,8	6,7	11,6	17,2	17,1	27,1	44
Desgaitasuna duten kolektiboen gizarteratzea eta lan-munduratzeara	9,6	4,6	13,2	23,8	29,3	32,7	46,8	25,3
Haurtzaindegi-zerbitzua	2,6	1,7	0,7	5	15,3	24,7	3,6	0

## V.- SOLDATA TARTEAK, GOGOBETETZEA ETA LAN GIROA

Soldata-eskalak aurreko edizioetako maila berberetan mantentzen dira, eta kasu gehienetan (% 77) aldea gehienez ere gutxieneko soldata-maila baino 1-3 aldiz handiagoa da. Nolanahi ere, 200 enplegutik gorako enpresen arteko soldata-arrakala 4 eta 6 aldiz handiagoa bitarteko tartetaraino igotzen da.

Asebetetze-maila edo laneko giroa ere 10etik 8 puntu inguruan mantendu da batez beste.

2022an soldataren eskalak Euskadiko gizarte-ekonomian izan duen egitura bat dator aurreko edizioetakoarekin.

Hortaz, enpresa-ehundurako zati handi batean, langileen arteko soldata-desberdintasuna gutxieneko soldata baino 1 eta 3 aldiz handiagoaren artean dago (enpresa guztien % 77,2 eta % 79ra arte 5 enplegu baino gutxiago dituzten mikroenpresetan zein zerbitzuen sektorean).

Hala ere, soldata-desberdintasunak handitu egiten dira enpresen tamaina handitu ahala. Horrela, enpresa handien artean (200 enplegu baino gehiago) soldata-aldeak nabarmenagoak dira, eta txikien artean eta handien arteko aldea soldata halako 4-6 artekoa da.

SOLDATA ALDEA EDO TARTEA ENPRESAN (GUTXIENEO SOLDATA MAILAREN ETA GEHIENEO MAILAREN ARTEKO ALDEA). ENPRESA DIMENTSIOAREN ARABERA (%). 2022

	GUZTIRA	Gehienez 5 enplegu	6 eta 15 artean	16 eta 50 artean	51 eta 100 artean	101 eta 200 artean	201 eta 500 artean	500 enplegu baino gehiago
1etik 1-2-3 aldiz arteko aldea	<b>77,2</b>	78,6	81,9	77	61,3	54,7	37	12,9
1etik 4-5-6 aldiz arteko aldea	<b>6,7</b>	3,1	6,7	15,8	26,5	24,8	43,5	54,1
1etik 7-8-9 aldiz arteko aldea	<b>0,5</b>	0,3	0,8	0	1,2	2,9	3,2	7,2
1etik 10 aldiz edo gehiagora arteko aldea	<b>0,4</b>	0,3	0,5	0	1,1	0	0	0
Zehaztu gabe	<b>15,2</b>	17,7	10,1	7,3	10	17,6	16,3	25,8

2022an, enpresen % 22 inguruk ebaluatu du langileen batez besteko asebetetze-maila. Kopurua antzekoa da industrian (% 23) eta zerbitzuetan (% 24).



Nolanahi ere, lan-giroari lotutako barne-ebaluazio mota horiek ohikoak dira 50 enplegu baino gehiago dituzten enpresa gehienetan – enpresen erdia baino gehiago, eta 500 enplegu baino gehiago dituzten enpresen % 56 –.

Ebaluazio horietan lortutako batez besteko notari dagokionez, 8 puntu ingurukoa da 10etik, aurreko bi edizioetan bezala. Mikroenpresen kasuan, balorazio hori are altuagoa da (8,2) enpresa handiagoekin alderatuz gero; horien kasuan 7tik gorakoa baita batez besteko nota.



LANGILEEN GOGOBETETZEA BARNETIK NEURTZEN DUTEN GIZARTE EKONOMIAKO ENPRESEN  
EHUNEKOA, ENPRESA DIMENTSIONAREN ARABERA, 2022 (%)

Asebetetzea barnetik  
neurtzen dute



GOGOBETETZE-MAILA, AZKEN NEURKETA/EBALUAZIOAREN EMAITZA OROKORRA (%).  
2022 – Balorazioa 0 eta 10 artean

Batez  
besteko  
balorazioa  
**7,85**

## VI.- TALENTUAREN ETA ADINAREN KUDEAKETA ENPRESETAN (GEFK)

Talentua atzematea arazoa izan da enpresen % 27 ingururentzat 2022an eta talentu hori mantentzea % 19rentzat. Halaber, adinaren kudeaketa ere kezkarria da enpresen % 20 ingururentzat.

Talentuaren eta adinaren kudeaketaren kontua are garrantzitsuagoa da 16 enplegutik gorako enpresen etorkizunarentzat.


Talentuaren kudeaketa izaera estrategiko geroz eta garrantzitsuagoa hartzen ari da enpresen etorkizunarentzat. Biztanleriaren zahartzea dela eta, gero eta zailtasun handiagoak daude langile espezializatuak kontratatzeko eta hori da egungo arazo nagusietako bat Euskadiko enpresetako zuzendarientzat.

Hala, 2022an, gizarte-ekonomiako enpresen % 27k uste du talentua atzematea arazotsua izango dela enpresen kudeaketarako eta % 18,7k talentua atxikitzea. Bi kasuetan, igo egin da arazo horiekin kezkatuta dauden enpresen proportzioa; izan ere, 2020an, enpresen % 21,5ek uste zuen zaila zela talentua atzematea eta % 12,8k atxikitzea.


LANGILE KUALIFIKATUAK ERAKARTZEKO ETA ATXIKITZEKO KUDEAKETA (%). 2020

### ETORKIZUNEAN


Enpresen **% 26,9k** aurreikusten du **talentua ERAKARTZEA** kudeaketa-arazoa izango dela; **% 95,9ren** ustez **berriz, arazo handi samarra edo oso garrantzitsua da**



Enpresen **% 18,7k** aurreikusten du **talentuaren ATXIKIPENA** kudeaketa-arazoa izango dela; **% 94,3ren** ustez **berriz, nahiko arazo garrantzitsua edo oso garrantzitsua da.**




ANALISIA, ARLOZ ARLOKO JARDUERAREN ARABERA. TALENTUAREN KUDEAKETA ARAZOTZAT JOTZEN DUTEN ENPRESEN EHUNEKOA (%). 2022



Aurreko edizioetan bezala, talentuaren kudeaketa enpresentzat arazotsua izango denaren pertzepzioa nabarmen igo da 16 eta 50 enplegu bitarteko tartetik aurrera.


ENPRESAREN TAMAINAREN ARABERAKO AZTERKETA TALENTUARENKUDEAKETA ARAZOTZAT JOTZEN DUTEN ENPRESEN EHUNEKOA (%). 2022




Gizarte-ekonomia osatzen duten enpresen erronka estrategikoen ildo horretatik, 2022ko edizioko berrikuntza da adinaren kudeaketa enpresetan. Enpresen % 20 ingururi eragiten dio arazo horrek eta are hein handiagoan industria-sektoreko enpresei (% 32).

Kezka hori adierazi duten enpresen artean, % 19 inguruk neurriak aplikatzen ditu: beharren diagnostikoak eta ondorengotza-planak egitea, gazteak kontratatzea, prestakuntza dualeko ikasleak atzematea, errelebo-kontratuak aplikatzea, erretiro aurreratuak sustatzea edo Lan Mentoringa<sup>10</sup>.

LANTALDEAREN ZAHARTZEA ARAZOTZAT JOTZEN DUTEN ENPRESEN ETA NEURRIAK APLIKATZEN DITUZTEN ENPRESEN EHUNEKOA (%). 2022. (GEFK)



ANALISIA, ARLOZ ARLOKO JARDUERAREN ARABERA. LANTALDEAREN ZAHARTZEA ARAZOTZAT JOTZEN DUTEN ENPRESEN EHUNEKOA (%). (%). 2022. (GEFK)



<sup>10</sup> Belaunaldi arteko txandaketa eta adinaren kudeaketa ETE-etan.

## VII.- ENPRESA-KUDEAKETARAKO TRESNAK (GEFK)

Kudeaketa-tresnarik zabalduenak lotuta daude barne-erregimeneko araudiekin, prestakuntza-planekin eta kudeaketa-planekin eta % 28 inguruko mailan daude. Kasu honetan ere, enpresen dimentsioa funtsezko elementua da enpresen plangintzarako tresna mota hori ezartzeko ala ez.

Ingurumen-arloan, enpresen % 28,5ek ekintzak egiten ditu inpaktua murrizteko. 16 enplegutik gorako enpresen kasuan, enpresen erdira arte igotzen da kopuru hori. Horri dagokionez, % 12 inguruk ingurumeneko ISO ziurtagiria du egun.

Aurreko edizioetan bezala, barne-erregimeneko araudiak, prestakuntza-planak eta kudeaketa-planak dira gizarte-ekonomiako enpresen artean zabalduen dauden kudeaketarako tresnak; izan ere, enpresen % 28 eta % 30 artean dira kudeaketarako tresna mota horiek dituztenak.

Enpresen proportzio adierazgarri baten eguneroko kudeaketaren parte dira beste tresna hauek ere, eta Gizarte Ekonomiako enpresa guztien % 20/22 inguruk erabiltzen dituzte:

- Lanpostuak Baloratzeko Gidaliburua dute enpresen % 22,9k.
- Plan Estrategikoa (% 20,8).
- Familia eta lana uztartzeko Kontziliazio Planak (% 22,4)
- Portaera Kodea-Kode etikoa (% 19,9).

Kasu honetan ere, tresna mota horiek dituzten enpresen proportzioa igo egiten da enpresen dimentsioa handitu ahala, eta 100 enplegutik gorako enpresen kasuan, % 70/80 inguruko kotara iristen da.

EGEri buruzko txostena edo balantze soziala izatea aldiz askoz ere mugatuago dago eta enpresen % 10 baino gutxiagok egiten du.


KUDEAKETA TRESNEN ANTOLAKETA ENPRESA TAMAINAREN ARABERA (idatzizko dokumentuetan tresna horiek dituzten enpresen %) 2022

	GUZTIRA	Gehienez 5 enplegu	6 eta 15 artean	16 eta 50 artean	51 eta 100 artean	101 eta 200 artean	201 eta 500 artean	500 enplegu baino gehiago
1.- Prestakuntza Plana	<b>28,2</b>	17,4	41,3	54,3	64,8	71,9	63,6	74,9
2.- Barne-erregimeneko araudia	<b>30,0</b>	20,2	33,9	63,5	76,6	80	69,1	74,9
3.- Kudeaketa-plana	<b>28,0</b>	19,2	29	58,2	76,2	79,7	69,1	69,2
4.- Lanpostuak baloratzeko gidaliburua	<b>22,9</b>	13,8	29,5	51,4	56	57,8	69,1	74,9
5.- Plan Estrategikoa	<b>20,8</b>	12,5	22,7	44,3	67,1	72,9	69,1	74,9
6.- Portaera Kodea - Kode Etikoa edo antzeko dokumentua	<b>19,9</b>	13	23,8	34,3	64,4	53,4	53,8	69,2
7.- Berdintasun-plana	<b>16,9</b>	9,5	15,5	33,7	70,5	81,4	69,1	69,2
8.- Familia/bizitza pertsonala eta lana uztartzeko Kontziliazio Plana	<b>22,4</b>	15,3	23,9	46,4	54,3	66,4	65,3	55,9
9.- EGEri buruzko txostenak edo balantze soziala	<b>9,9</b>	6,1	12,1	15,7	28,7	27,4	56,1	42,8




Halaber, enpresen % 28,5ek neurriak edo ekintzak egiten ditu ingurumeneko inpaktua murrizteko edo minimizatzeko. Proportzio hori % 50era iristen da 16 enplegutik gorako enpresetan eta are % 66ra iristen da 101 eta 200 enplegu arteko enpresetan.

INGURUMENAREKIN LOTUTAKO JARDUERA MOTAREN BAT EGITEN DUTEN ENPRESEN EHUNEKOA, ENPLEGUAREN ESTRATUAREN ARABERA (estratu bakoitzeko enpresa guztien gaineko %). 2022




Horri dagokionez, Euskadiko kooperatiben eta lan-sozietateen % 11,6k adierazi du ingurumeneko ISO ziurtagiri bat duela, baina mikroenpresen artean, apenas iristen da % 3ra kopuru hori 5 enplegutik beherako enpresen artean eta % 11,5era 6 eta 15 enplegu bitarteko enpresen artean. Soilik 200 enplegutik gorako enpresen artean adierazi dute enpresen erdiek ingurumeneko ISO ziurtagiriren bat dutela.

INGURUMENEN ISO ZIURTAGIRIA DUTEN ENPRESEN EHUNEKOA (geruza bakoitzeko enpresen guztizkoaren %). 2022



Azkenik, prestakuntza-jardueren intzidentzia-tasa % 18koa da kooperatiba eta lan-sozietate guztien artean. Mikroenpresetan, tasa hori txikiagoa da: % 13,1koa 6 enplegutik beherako enpresen artean eta % 15,4koa 6 eta 15 enplegu bitartean dituzten enpresen artean. 50 enplegutik gora, enpresa ehunduraren ia erdira iristen da kota.

KOOPERATIBEN ETA LAN SOZIJETATEEN PRESTAKUNTZA (azken bi urteetan alor horretan jarduerak egiten dituzten enpresen % enplegu-geruzaren arabera). 2022



## VIII.- ENPRESEN ARTEKO LANKIDETZA (GEFK)

**Enpresen erdiak inguruk enpresen arteko lankidetzak harremanak izan ditu 2022an; % 63k 51 enplegutik gorako enpresen kasuan.**

**Hala ere, hein handi batean puntualak dira lankidetzak horiek (% 29).**


Gizarte-ekonomiako enpresen % 47,8k enpresen arteko lankidetzak harreman motaren bat izan du 2022an, hau da, 2020an baino ehuneko 3,2 puntu gehiago.

Enpresen arteko lankidetzak zabalduago dago enpresa handien artean (% 63 51 enplegutik gorako enpresen artean).

Kasu gehienetan, lankidetzak puntualak izaten dira (enpresen % 28,7). Harreman egonkor edo estrategikoak ez dira hain maiz suertatzen. Soilik enpresen % 13,1ek ezarri ditu aliantza estrategikoak 2022an.

Izatez, enpresen arteko lankidetzak modurik "estuenak", hala nola bigarren mailako kooperatibak, akzioen trukea eta Joint Venturesak formalizatzea, maiztasun gutxirekin ageri dira.

GIZARTE EKONOMIAKO ENPRESEN LANKIDETZA HARREMANEN IZAERA (enpresen %, guztizkoaren gainean). 2022





## IX.- FINANTZATZEKO ZAILTASUNAK ETA ENPRESEN KOSTUEN GORAKADA

Enpresen heren batek zailtasunak izan ditu kostuen gorakadarengatik eta inflazioaren tentsioagatik.

**Errealitate horrek eragin handia du enpresa-ehunduran**

Azken bi urteotan euriborra igo egin den arren, Gizarte Ekonomiako sei enpresatik batek bakarrik (% 13,4) adierazi du zailtasunak dituela enpresak finantzatzeko.

Hala ere, 2022an eta 2023an izandako lehengaien eta energiaren kostuaren igoera handiak ekarritako kostuen gorakadak eragin handiagoa izan du Euskadiko ekonomiako enpresetan. Hiru enpresatik bati eragin dio eta eragin negatiboa izan du fakturazioan.

FINANTZATZEKO ZAILTASUNAK ETA KOSTUEN GORAKADA EUSKADIKO GIZARTE EKONOMIAN (%). 2022

	Guztira	S.KOOP	SAL	SLL
Finantzatzeko zailtasunak dituzten enpresak	13,4	13	18	14,2
Finantzaketa-lerro berriak zabaldu dituzten enpresak	14,6	12,2	27,3	22,5
Kostuen gorakadarengatik zailtasunak dituzten enpresak	33,0	30,7	68,1	34,3
Fakturazioan inflazioaren presioaren eragin negatiboa jasan duten enpresak.	33,1	31,1	63,3	34,4

Arloz arlo, industriako enpresak dira finantzaketa-arazorik handienak dituztenak (sektore guztiaren % 22,6), baita kostuen gorakadak (% 49) eta enpresen fakturazioan izandako inpaktu negatiboak (% 43) gehien eragin dituenak ere.

Inpaktu handiago hori bat dator enpresen jardura propioarekin; izan ere, lehengaien eta energiaren kostuaren emaitzen kontuan garrantzia du.

FINANTZATZEKO ZAILTASUNAK ETA KOSTUEN GORAKADA EUSKADIKO GIZARTE EKONOMIAKO JARDUERA SEKTOREAREN ARABERA (%). 2022

	Guztira	Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza	Industria	Eraikuntza	Zerbitzuak
Finantzatzeko zailtasunak dituzten enpresak	13,4	15,3	22,6	12,9	10,6
Finantzaketa-lerro berriak zabaldu dituzten enpresak	14,6	24,3	26	15	10,7
Kostuen gorakadarengatik zailtasunak dituzten enpresak	33,0	50,2	49	28,9	28,4
Fakturazioan inflazioaren presioaren eragin negatiboa jasan duten enpresak.	33,1	43,7	42,8	28,7	30,8

Ez dago desberdintasun adierazgarririk enpresen dimentsioaren arabera. Izatez, 6 enplegutik beherako enpresak dira finantzatzeko zailtasun gutxien izan dutenak eta kostuen gorakadan inpaktu negatiborik txikiena izan dutenak.

FINANTZATZEKO ZAILTASUNAK ETA KOSTUEN GORAKADA EUSKADIKO GIZARTE EKONOMIAKO  
ENPRESEN TAMAINAREN ARABERA (%). 2022

	<b>Guztira</b>	<b>Gehiene z 5 enplegu</b>	<b>6 eta 15 artean</b>	<b>16 eta 50 artean</b>	<b>51 eta 100 artean</b>	<b>101 eta 200 artean</b>	<b>201 eta 500 artean</b>	<b>500 enplegu baino gehiago</b>
Finantzatzeko zailtasunak dituzten enpresak	<b>13,4</b>	11,3	17,2	20,2	14	18,7	8,1	24,2
Finantzaketa-lerro berriak zabaldu dituzten enpresak	<b>14,6</b>	9,7	23,1	27,6	24,9	26	15,5	39
Kostuen gorakadarengatik zailtasunak dituzten enpresak	<b>33,0</b>	29,9	38,9	44,5	28,8	44	26,3	43,3
Fakturazioan inflazioaren presioaren eragin negatiboa jasan duten enpresak.	<b>33,1</b>	31,3	37,3	39,4	28,7	42,8	23,7	37,5



## IX.- BERRIKUNTZAREN JARDUERAK ETA INPAKTUA (GEFK)

2022an, gizarte-ekonomiako enpresen arteko berrikuntza ratioa (% 26,3) Euskadiko batez bestekoa baino handiagoa izan da (% 24,2), eta, industriaren kasuan, % 31,5era igo da.


Hala ere, berrikuntza-ratioak jaitsi egin dira aurreko edizioarekin alderatuta, ehuneko 2 puntu inguru industrian eta 14 puntura arte zerbitzuetan.

Gizarte Ekonomia osatzen duten enpresak % 26,3ko berrikuntza-tasara iritsi dira 2020/2022 biurtekoan, aurreko biurtekoan lortutako mailaren oso antzekoa (% 26,6).

Hau da, Euskadiko kooperatiben eta lan-sozietateen % 26,6k produktuaren eta/edo prozesuaren berrikuntza-jarduerak egin ditu, enpresaren barruan egindako lanen (barneko I+G) edo enpresak egindakoen bitartez, edo beste erakunde batzuk egin eta aplikatutakoen bitartez (kanpoko I+G).

Hala, Euskadiko Gizarte Ekonomiaren berrikuntza-maila Euskadiko enpresa-ehundura guztiarena baino ehuneko 2,1 puntu handiagoa da.

PRODUKTU ETA/EDO PROZESUEN BERRIKUNTZA-JARDUERAK EGITEA (2020-2022 aldian berrikuntza-jarduerak egin dituzten enpresen %). 2022



Iturria: Geuk egina, Eustatetik abiatuta. 2022ko berrikuntza-inkesta

\*Produktuaren eta prozesuaren berrikuntza duten establezimenduak barne hartzen ditu


\*\*Egiten ari den edo huts egin duen berrikuntza soilik egiten duten establezimenduak barne hartzen ditu

Ohikoa den moduan, berrikuntza-tasa handiagoa da industria-sektorean. Hala, % 31,5ekoa da kooperatiben eta lan-sozietate industrialen artean.

Bereziki interesgarria da egiaztatzea gizarte-ekonomiako ehundura industrialak Euskadiko sektore osoak baino dinamismo berritzaile handiagoa duela: % 31,5eko tasak nabarmen gainditzen du Euskadiko industria-sektore osoarena (% 26,1).

Aldiz, Gizarte Ekonomiako zerbitzuen sektoreko enpresek % 14,4ko berrikuntza-tasa dute, Euskadiko sektore tertziarioaren oso azpitik (% 25,4).

PRODUKTU EDO PROZESU BERRIKUNTZA JARDUERAK EGITEA ARLOZ ARLOKO JARDUERAREN ARABERA (2020-2022 aldian berrikuntza-jarduerak egin dituzten enpresen %). 2022



Iturria: Geuk egina, Eustatetik abiatuta. 2022ko berrikuntza-inkesta

\*Egiten ari den edo huts egin duen berrikuntza soilik egiten duten establezimenduak barne hartzen ditu

Gero eta dimentsio handiagoa berrikuntza-tasa handiagoarekin lotzen duen egiturazko joera berresten du azterketak. 16 enplegutik gorako establezimenduek alde handia dute 15 enplegutik beherakoekin alderatuta.

Hala, 6 eta 15 enplegu bitarteko kooperatibek eta lan-sozietateek % 27,4ko berrikuntza-tasa dute, aldez, 6 enplegutik beherako mikroenpresek % 20,3ko berrikuntza-tasa dute, hau da, 5 enpresatik 1ek soilik gauzatzen du berrikuntza.


16 eta 50 urte bitarteko enpresek berriz, aise gainditzen dute mikroenpresen berrikuntza-tasa: % 47ko berrikuntza-tasa dute eta 50 enplegutik aurrera, % 50eko kota gainditzen dute. 201 eta 500 enplegu bitarteko enpresen kasuan, % 69ra iristen dira.

PRODUKTU EDO PROZESU BERRIKUNTZA JARDUERAK EGITEA, ENPRESA TAMAINAREN ARABERA, (2020-2022 aldian berrikuntza-jarduerak egin dituzten enpresen %). 2022

	GUZTIRA	Gehienez 5 enplegu	6 eta 15 artean	16 eta 50 artean	51 eta 100 artean	101 eta 200 artean	201 eta 500 artean	500 enplegu baino gehiago
<b>GIZARTE EKONOMIAREN BERRIKUNTZAREN %</b>	<b>26,3</b>	20,3	27,4	47,1	51,9	58,9	69,1	60,9

Azkenik, gizarte-ekonomiako enpresen % 22,1ek berretsi du berrikuntzak enpleguan nolabaiteko eragina izan duela.

ENPLEGU OSOAN BERRIKUNTZAK IZAN DUEN INPAKTUA (berrikuntzak enpleguan duen eragin-motaren bat berresten duten enpresen %). 2022



Oinarria: 2020-2022 aldian berrikuntza egin duten enpresak



## XI.- GIZARTE EKONOMIAREN BESTE FORMA BATZUK 2022 (GEBF)

1.272 erakundek osatzen dute guztira Gizarte Ekonomiaren Beste Forma batzuk eta 2022an ordaindutako 33.249 enplegu sortu dituzte guztira.

Talde heterogeneo horrek % 7,2 handitu du bere enpleguaren kopurua, GEFKena eta Euskadiko okupazioarena baino erritmo biziagora (% 2,3 eta % 3,8, hurrenez hurren). Aurrerapen horren arrazoia da, hein handi batean, Fundazioek eta Onura Publikoko Elkarteek egindako enpleguaren sustapena. Erakunde horiek, elkarrekin, % 13ko aurrerapena lortu dute.

Enpleguaren kopuru positibo horiek lotuta daude jardueran izandako hazkunde nabarmenarekin. Jarduera hori fakturazioaren bilakaera nominalean neurtuz gero, 2020-2022 aldian % 19,1eko hazkundera izan du, GEFKrena bezalako (% 19,3).

Batez ere elkarteen (% 65) eta fundazioen (% 35) ehunduratik mobilizatutako boluntarioen artean, 14.560 pertsona inplikatu eta mobilizatu dira Euskadin 2022an zehar.

ERAKUNDEEN BANAKETA 2022KO GIZARTE EKONOMIAKO BESTE FORMEN ARTEAN  
(zifra absolutuak eta % bertikalak)

	Entitateak	
	2022	
	Abs.	% ber.
1. Fundazioak	674 (1)	53,0
2. Enplegu Zentro Bereziak	34	2,7
3. Onura Publikoko Elkarteak	288	22,6
4. Gizarteratze Enpresak	44 (2)	3,5
5. ENSak	74	5,8
6. Arrantzaleen Kofradiak	14	1,1
7. BGAEak	144 (3)	11,3
<b>GUZTIRA</b>	<b>1.272</b>	<b>100,0</b>

(1) Izena emanda dauden fundazioak; Iturria: Tokiko Administrazioekin Harremanetarako Zuzendaritza eta Fundazioen Protektoratuaren Erregistro Administrazioak.

(2) Gizarteratze Enpresen Erregistroa. Lanbide. Lan eta Enplegu Saila

(3) BGAEen erregistroa. Politika Finantzarioaren Zuzendaritza. Eusko Jaurlaritzaren Ekonomia eta Ogasun Saila

Bilakaerari dagokionez, erakundeen kopurua egonkor mantendu da ia 2020arekin alderatuta (+% 0,5) eta enplegua % 7,2ra igo da 2020-2022 urtean, GEFKrena baino erritmo azkarragoan (+% 2,3). Hazkunde hori Fundazioen eta Onura Publikoko Elkarteetan portaera onari esker izan da, 2020an eta 2022an % 12,7ko hazkundera izan baitute.

1.272 GEBFak guztira hartuta, eta erakunde-tipologiaren arabera, honako egitate hauek nabarmendu behar dira:

- Erakundeen erdia baino gehiago (% 53) Fundazioekin dago lotuta (2022an 674 fundazio zeuden izena emanda, horietatik 475 fundazio aktiboak dira eta 437k kontuak eman dituzte 2019-2022 aldiko ekitaldiren batean<sup>11</sup>).

Fundazioek, 15.011 enplegurekin guztira (% 81,5 kontratu finkoarekin), BEGFek sortutako okupazioaren % 45 baino gehiago kontzentratzen dute eta 2020arekin alderatuta, % 6,3 altuagoa da ordaindutako enpleguen kopurua.

Emakumeen enpleguaren pisua nabarmentzen da, 2022an % 56koa izan baita. Halaber, 2022an fundazioek gehieneko kopuru historikoa mobilizatu dute: 5.045 boluntario izan dira, eta horietatik % 57 emakumezkoak<sup>12</sup>.

- Bigarren lekuan, erakundeen kopuruari dagokionez, Onura Publikoko Elkartek daude (288 erakunde). Urtekotutako ordaindutako 6.595 enplegu dituzte guztira elkarte horiek, GEBFk sortutako enpleguaren % 20 inguru. Enplegu hori oso femeninoa da (% 75 inguru) eta ordezkaritza garrantzitsua du presidentetza-karguetan (% 46) eta zuzendaritzan/gerentzian (% 58).

Elkarte horiek, gainera, enplegu boluntario osoaren % 65 mobilizatzen dute - zehazki, 9.509 pertsona 2022 osoan zehar-, eta, era berean, % 57 emakumezko boluntarioak dira.

- Enplegu Zentro Bereziek (2022an Euskadin zehar 109 establezimendu zituzten 34 enpresa) GEBFn enplegu guztiaren % 31 baino apur bat gehiago kontzentratzen dute (10.345 enplegu urtekotu). Erakunde mota horrek, nolana ere, okupazioaren beheranzko dinamika du (-% 2,6).

Gainerako BEGFengandik bereizten dituen ezaugarria da erakunde mota horien dimentsioa, enpresa bakoitzak 304 enplegu baino gehiago baititu batez beste.

Enplegu Zentroetan gizonen enplegua nabarmentzen da -industria-sektoreak duen protagonismoarekin lotutako errealitatea-, 2022an % 56ko parte-hartzea izan baitzuen.

---

<sup>11</sup> Iturria: Gizarteratze Enpresen Erregistroa. Lanbide. Lan eta Enplegu Saila

<sup>12</sup> Iturria: Euskadiko Fundazioen Inpaktua 2022; iturria: Tokiko Administrazioekin Harremanetarako Zuzendaritza eta Fundazioen Protektoratuaren Erregistro Administrazioak.





- Lanbide- Euskal enplegu Zerbitzuak kalifikatutako Euskadiko 44 Gizarteratzeko Enpresek urtekotutako ordaindutako 957 enplegu sortu dituzte guztira 2022an, eta horrek % 17,1eko hazkundea ekarri du 2020 eta 2022 artean.

Generoari dagokionez, enpleguaren % 53 inguru femeninoa da eta emakumeek presidentetza eta zuzendaritza/kudeaketa karguetan duten ordezkariak % 42,3 eta % 39,3koa da, hurrenez hurren.

- Bestalde, Euskadiko 74 ENSek eta 14 Arrantzaleen Kofradiak lanaldi osoko 187 eta 75 lanpostu sortu dituzte 2022ko ekitaldian. Ordainpeko enplegu horren barruan, gizonezkoen presentzia da nagusi bi kasuetan (% 84 eta % 75etik gertu, hurrenez hurren).
- Azkenik, 144 BGAEk urtekotutako 79 enplegu sortu dituzte 2022an, eta, kasu honetan ere, emakumeen presentzia da nagusi (% 67).

GIZARTE EKONOMIAKO 2020KO eta 2022KO BESTE FORMA BATZUEN SEGMENTUEN ARABEAR URTERATUTAKO ENPLEGUAREN BANAKETA ETA BILAKAERA  
(zifra absolutuak eta % bertikalak)

	2020		2022		Urtekotutako ordaindutako enpleguaren bilakaera %Δ22/20
	Abs.	% ber.	Abs.	% ber.	
1. Fundazioak	14.125 (1)	45,5	15.011 (1)	45,1	% 6,3
2. Enplegu Zentro Bereziak	10.626	34,3	10.345	31,1	-% 2,6
3. Onura Publikoko Elkarteak	5.037	16,2	6.595	19,8	% 30,9
4. Gizarteratze Enpresak	817	2,6	957	2,9	% 17,1
5. ENSak	240	0,8	187	0,6	-% 22,1
6. Arrantzaleen Kofradiak	96	0,3	75	0,2	-% 21,9
7. BGAEak	72 (2)	0,2	79 (2)	0,2	% 9,7
<b>GUZTIRA</b>	<b>31.013</b>	<b>100</b>	<b>33.249</b>	<b>100</b>	<b>% 7,2</b>

(1) Euskadiko Fundazioen Inpaktua 2022; iturria: Tokiko Administrazioekin Harremanetarako Zuzendaritza eta Fundazioen Protektoratuaren Erregistro Administrazioak.

(2) Aurreikuspen Planak dituzten BGAEen enplegatuen kopuruari buruzko 35. txostena. Politika Finantzarioaren Zuzendaritza. Eusko Jaurlaritzaren Ekonomia eta Ogasun Saila

Oro har, **erakunde heterogeneoen kolektibo horrek % 19,1eko aurrerapena izan du fakturazio nominalari dagokionez 2020 eta 2022 artean tipologia guztietan, Eraldaketako Nekazaritza Sozietateetan izan ezik.**

- Hala, erakunde motaren arabera, fakturazioak fundazioetan (% 23 inguru), Onura Publikoko Elkarteetan (% 55 gutxi gorabehera) eta Enplegu Zentro berezietan izandako aurrerapena nabarmentzen da (+% 17,5, aurreko 2018-2020 biurtekoan izandako %17 inguruko beherakadatik berreskuratuz).
- Gainera, BGAEen jardura % 6,3 handitu da (aurreko biurtekoko % 2,9 aurrerapen positiboa gaudituz); Gizarteratze Enpresek jardura bikoiztu dute (aurreko biurtekoan % 25eko beherakada handia izan zen jardueran); eta Arrantzaleen Kofradiak jardura egonkor mantendu dute ia 2020arekin alderatuta (+% 1,8).

- Alabaina, ENSek pisua galdu dute azken urteotan, eta 2020 eta 2022 artean %9,6 murriztu da horien fakturazio nominala. Hala, aurreko biurtekoan izandako beheranzko joerarekin jarraitu da (-% 12,5).

GIZARTE EKONOMIAREN BESTE FORMA BATZUETAKO SEGMENTUEN ARABERAKO  
FAKTURAZIOAREN BILAKAERA 2020 - 2022 (zifra absolutuak eta % bertikalak)

	Fakturazioa	
	Abs.	%Δ22/20
1. BGAEak	1.123.045.766 1	6,3
2. Fundazioak	541.742.008	22,6
3. Enplegu Zentro Bereziak	366.408.808	17,5
4. Onura Publikoko Elkarteak	220.758.902	54,6
5. Arrantzaleen Kofradiak	67.529.039	1,8
6. ENSak	58.870.272	-9,6
7. Gizarteratze Enpresak	37.713.513	126,6
<b>GUZTIRA</b>	<b>2.416.068.308</b>	<b>19,1</b>

(1) BGAEn galeren eta irabazien kontuak, 2022ko Aurreikuspen Planekin. Sortutako kuotak. Politika Finantzarioaren Zuzendaritza. Eusko Jaurlaritzaren Ekonomia eta Ogasun Saila

**Jardueraren hazkundearekin gainera nabarmen sustatu da enplegua, % 7,2 2020 - 2022 artean, kopuru hauetan oinarrituta...**

- aurrerapena Fundazioen (+% 6,3) okupazioan eta Onura Publikoko Elkarteetan (+% 31 inguru, aurreko 2018-2020 biurtekoan izandako % 23ko hazkunde handiarekin jarraituz).
- Eta, hein txikiagoan, Gizarteratze Enpresek (% 17,1) eta BGAEk (+% 9,7) enpleguan izandako portaera positiboarengatik.

Enplegu Zentro Berezien kasuan berriz, 2020-2022 artean fakturazio nabarmen handitu duten arren (+% 17,5), enpleguaren zifra apur bat murriztu dute (-% 2,6), eta, hala, aurreko biurtekoan izandako okupazioaren bilakaera positiboaren (+% 6,4) joerari aurka egin.

Azkenik, enpleguari dagokionez, enpleguaren galeraren % 22 inguru lotuta dago ENSekin eta Arrantzaleen Kofradiekin.

**Jarduera berreskuratu den urte honetan, BEGFen emaitza positiboak ere adierazgarriak izan dira. 2022an, 463,5 milioi euroko etekinak izan dituzte eta 2020ko pandemiaren urtean izandako galerak arindu dituzte (-108,3 milioi euro).**

Emaitza positibo horietan eragina izan dute batik bat Euskadiko fundazioek (% 94) eta, halaber, horien artean, Euskadiko hiru kutxek erregistratutako emaitza positiboek. Tipologiaren arabera, emaitza positiboak izan dira erakunde guztietan, Arrantzaleen Kofradietan izan ezik (-2,1 milioi).


GEBF-EN ARTEAN ERAKUNDE MOTAREN ARABERAKO EMAITZAK 2022 (zifra absolutuak)



BEGari dagokionez, Fundazioek (264,6 milioi euro), Enplegu Zentro Bereziak (152,7 milioi euro) eta Onura Publikoko Elkarteek (127 milioi euro) GEBFetako GEBen % 94,5 inguru bilduko lukete 2022an. GEB positiboa izan da GEBF mota guztietan.

Hala, 2022an, GEBFek 576 milioi euroko balioa duen GEB orokorra sortu dute, hau da, 2020koa baino % 40,5 gehiago eta 2018ko BEG mailaren berdina (432 milioi euro).

GEBF-EN ERAKUNDE MOTAREN ARABERAKO BEG, 2022 (zifra absolutuak)



**2023ko ekitaldiari lotutako parametro handien “aurrerapen” gisa, 2022-2023 artean % 1,6ko urteko hazkundera izan da Fundazioen, Enplegu zentro Berezien eta Laneratzeko Enpresen artean -erakunde horiek, batera, GEBFen enpleguaren % 79 osatzen dute-, fakturazioaren 2022-2023 urteko % 8,3ko hazkundera oinarrituta.**

## XII.- GEFK eta GEBF IRAKURKETA AGREGATUA 2022

Gizarte-ekonomiaren multzoak (GEFK eta GEBF) **5.230 establezimendu** izango lituzke 2022an, 3.596 establezimendu forma klasiko deiturikoei (kooperatibak eta lan-sozietateak) lotuta, eta beste 1.866 establezimendu gizarte-ekonomiaren beste formek osatutako askotariko kolektiboari lotuta.

Establezimenduen parke horrek guztiak **ordaindutako 93.608 lanpostu sortzen ditu.**

- 61.781 enplegu kooperatibo eta laboral
- eta 33.249 enplegu gainerako erakundeekin lotuta, hein handi batean, fundazioetan (15.011) eta enplegu Zentro berezietan kontzentratuta (10.345).

Enplegu agregatuaren zifra horren arabera, gizarte-ekonomiaren sektoreak **% 9,7ko pisua du EAEko biztanleria okupatuari dagokionez (2020an baino ehuneko 0,2 puntu gehiago).**

GEFK eta GEBF ESTABLEZIMENDU ETA ENPLEGU BERRITUEN BANAKETA 2022  
(zifra absolutuak)

	2022	
	Establezimenduak	Enpleguak
<b>GEFK</b>	<b>3.596</b>	<b>61.781</b>
Kooperatibak	2.931	55.242
SLak	665	6539
<b>GEBF</b>	<b>1.866</b>	<b>33.249</b>
Fundazioak	815	15.011 (1)
Enplegu Zentro Bereziak	109	10.345
Onura Publikoko Elkarteak	618	6.595
Gizareratze Enpresak	84	957
ENSak	74	187
Arrantzaleen Kofradiak	22	75
BGAEak	144	79
<b>GUZTIRA –bikoizketarik gabe<sup>13-</sup></b>	<b>5.420</b>	<b>93.608</b>

(1) Euskadiko Fundazioen Inpaktua 2022; iturria: Tokiko Administrazioekin Harremanetarako Zuzendaritza eta Fundazioen Protektoratuaren Erregistro Administrazioak.

Enpresa- eta gizarte-ehundura horrek 2022an garatutako jarduerak

- 12.007 milioi euroko fakturazioa izan du urtean (% 80 GEFK eta % 20 GEBF)
- eta **3.512 milioi euroko balioa duen BEG orokorra. Kopuru hori 2022ko Euskadiko BEGren % 4,5 ingurukoa da<sup>14</sup>.**

<sup>13</sup> Erakunde hauekin lotutako bikoizketak: Asociación de Reinserción Social Zabaltzen Elkartea; Katea Legaia; Berjantzi; Euskarri; Integra social outsourcing ; Kupelan Kentucky; Pormu; Koopera Servicios Ambientales; Eztikidetzta; Sutargi

<sup>14</sup> Iturria: 2022ko Kontu Ekonomikoak, Eustat. Prezio arrunten BALIO ERANTSI GORDINA (BEG)



## GEFK eta GEBF-EN FAKTURAZIO ETA BEG BANAKETA, 2022 (zifra absolutuak)

	2022	
	Fakturazioa	BEG
<b>GEFK</b>	<b>9.628.662.985</b>	<b>2.958.177.888</b>
Kooperatibak	8.974.525.050	2.696.265.803
SLak	654.137.935	261.912.085
<b>GEBF</b>	<b>2.416.068.308</b>	<b>576.036.812</b>
Fundazioak	541.742.008	264.560.011
Enplegu Zentro Bereziak	366.408.808	152.728.943
Onura Publikoko Elkarteak	220.758.902	126.995.957
ENSak	58.870.272	10.255.237
Arrantzaleen Kofradiak	67.529.039	19.544.061
Gizarteratze Enpresak	37.713.513	1.952.603
BGAeak (1)	1.123.045.766	E. d.
<b>GUZTIRA –bikoizketarik gabe<sup>15</sup>–</b>	<b>12.007.034.644</b>	<b>3.512.336.332</b>

(1) BGAEn galeren eta irabazien kontuak, 2022ko Aurreikuspen Planekin. Sortutako kuotak. Politika Finantzarioaren Zuzendaritza. Eusko Jaurlaritzaren Ekonomia eta Ogasun Saila

Bilakaerari dagokionez, **berreskurapen sozioekonomikorako ahaleginaren barruan, gizarte-ekonomiako enpresa eta erakunde guztiek lortu dute jardueraren fakturazio nominala % 19,2 handitzea.**

Halaber, jardueraren berreskurapen horrekin enplegua (+% 6,5), BEGren aurrerapen nominala (+% 5,6) eta soldaten masa (+% 5,0) handitu dira. Hori guztia hazkunde horiek arinduko lituzkeen inflazio handiko testuinguruan.

GEFK eta GEBF MAKROMAGNITUDE NAGUSIEN BILAKAERA 2020-2022  
(zifra absolutuak eta %)

Gizarte ekonomia agregatua (GEFK eta GEBF)	2020	2022	Bilakaera 2020-2022
Establezimenduak	4.937	<b>5.420</b>	% 9,8
Urtekotutako ordaindutako enplegua	87.915	<b>93.608</b>	% 6,5
Fakturazioa	10.073.815.827	<b>12.007.034.644</b>	% 19,2
Soldatak	3.071.646.101	<b>3.224.472.982</b>	% 5,0
BEG	3.327.626.023	<b>3.512.336.332</b>	% 5,6

<sup>15</sup> Erakunde hauekin lotutako bikoizketak: Asociación de Reinserción Social Zabaltzen Elkartea; Katea Legaia; Berjantzi; Euskarri; Liburki; Kupelan Kentucky; Pormu; Koopera Servicios Ambientales; Danobat; Legu; Sidras Mina; Jarrarte; Eztiakidetzak; Mendiko; SAT Valle de Karrantza; Sutargi. Sustrai Etik





# ESTADÍSTIKA ERANSKINA





## I.- GIZARTE EKONOMIAREN FORMA KLASIOAK 2022 (GEFK)

### 1.- ENPLEGUAREN ETA ESTABLEZIMENDUEN DINAMIKA 2020-2022 BIURTEKOAN (GEFK)

1.1 taula GIZARTE EKONOMIAREN ALORREKO ESTABLEZIMENDUEN ETA ENPLEGUAREN BILAKAERA 2002-2022. KONPARAZIOZKO ERREFERENTZIA: BIZTANLERIA OKUPATUA EAE-N. (GEFK)

	GIZARTE EKONOMIA		Biztanleria okupatua EAEn
	Establezimenduak	Enpleguak	
2002	3.018	61.022	902.200
2004	3.074	61.140	930.600
2006	3.138	63.480	962.100
2008	3.028	62.615	986.100
2010	3.039	59.915	937.800
2012	3.120	55.809	898.400
2014	3.169	54.582	880.600
2016	3.235	57.018	903.300
2018	3.337	60.609	935.100
2020	3.424	60.401	929.200
<b>2022</b>	<b>3.596</b>	<b>61.781</b>	<b>964.200</b>
$\Delta 22/20$	<b>% 5,0</b>	<b>% 2,3</b>	<b>% 3,8</b>


Oharra: Okupazioari buruzko datuak hemendik atera dira: Eustaten Biztanleria Jardueraren arabera Sailkatzeko Inkesta (BJA). Urteko okupazioaren batez bestekoa

1.2 taula GIZARTE EKONOMIAKO ESTABLEZIMENDUEN ETA ENPLEGUEN HAZKUNDE TASAK 2000-2022 ARTEAN. KONPARAZIOZKO ERREFERENTZIA: BIZTANLERIA OKUPATUA EAE-N. (GEFK)


	Establezimenduak	Enpleguak	Biztanleria okupatua EAEn
$\Delta \%02/00$	+6,2	+12,6	+8,7
$\Delta \%04/02$	+1,9	+0,2	+3,1
$\Delta \%06/04$	+2,1	+3,8	+3,3
$\Delta \%08/06$	-3,6	-1,4	+2,7
$\Delta \%10/08$	+0,4	-4,3	-3,9
$\Delta \%12/10$	+2,7	-6,9	-4,7
$\Delta \%14/12$	+1,6	-2,2	-0,7
$\Delta \%16/14$	+2,1	+4,5	+2,6
$\Delta \%18/16$	+4,5	+6,3	+3,5
$\Delta \%20/18$	+2,6	-0,3	-0,6
<b><math>\Delta 22/20</math></b>	<b>+5,0</b>	<b>+2,3</b>	<b>+3,8</b>

Oharra: Okupazioari buruzko datuak hemendik atera dira: Eustaten Biztanleria Jardueraren arabera Sailkatzeko Inkesta (BJA). Urteko okupazioaren batez bestekoa

1.1 grafikoa EAEKO ESTABLEZIMENDUEN ETA ENPLEGUAREN BILAKAERA GIZARTE EKONOMIAN. 1994-2022. (GEFK)



1.2 grafikoa GIZARTE EKONOMIAREN ENPLEGUAK EAE-KO EKONOMIAN DUEN PISU ERLATIBOAREN BILAKAERA (EAEko enpleguen kopuru osoarekiko %). 1994-2022. (GEFK)



Oharra: Alderaketari buruzko datuak hemendik atera dira: Eustaten Biztanleria Jardueraren arabera Sailkatzeko Inkesta (BJA). Urteko okupazioaren batez bestekoa

1.3 taula GIZARTE EKONOMIAREN ENPRESA DIMENTSIOEN ADIERAZLEAK. 2018-2022. (GEFK)

	2020	2022
Establezimendu/enpresa kopurua	1,33	1,34
Enpresen Batez Besteko Tamaina (Enpleguak)	23,5	23,0
Establezimenduen Batez Besteko Tamaina (Enpleguak)	17,6	17,1

1.4 taula GIZARTE EKONOMIAREN ALORREKO ENPRESEN DIMENTSIOA (zifra absolutuak eta % bertikalak). 2022. (GEFK)

	Enpresa kopurua	% ber.	Enpleguak	% ber.	Batez besteko tamaina
Gehienez 5 enplegu	1.775	66,3	4.706	7,6	3
6 eta 15 artean	508	19,0	4.389	7,1	9
16 eta 50 artean	212	7,9	5.741	9,3	27
51 eta 100 artean	94	3,5	6.777	11,0	72
101 eta 200 artean	44	1,6	6.336	10,3	144
201 eta 500 artean	28	1,0	9.252	15,0	330
500 enplegu baino gehiago	18	0,7	24.581	39,8	1366
<b>GUZTIRA</b>	<b>2.679</b>	<b>100</b>	<b>61.781</b>	<b>100</b>	<b>23,0</b>

1.5 taula GIZARTE EKONOMIAKO ENPRESAK, FORMA JURIDIKOAREN ARABERA (zifra absolutuak). 2018-2022. (GEFK)

	2020	2022
S.KOOP	1.921	2.088
SALak	140	116
SLLak	509	475
<b>GUZTIRA</b>	<b>2.570</b>	<b>2.679</b>

1.6 taula ENPLEGU KOPURUAREN BILAKAERA GIZARTE EKONOMIAKO ENPRESEN TAMAINAREN ARABERA (zifra absolutuak eta %). 2018-2022. (GEFK)

	Enpleguak 2020	Enpleguak 2022	Bilakaera 2020 - 2022
Gehienez 5 enplegu	4.446	4.706	5,8
6 eta 15 artean	4.187	4.389	4,8
16 eta 50 artean	6.180	5.741	-7,1
51 eta 100 artean	6.777	6.777	0,0
101 eta 200 artean	7.213	6.336	-12,1
201 eta 500 artean	8.698	9.252	6,4
500 enplegu baino gehiago	22.900	24.581	8,5
<b>GUZTIRA</b>	<b>60.401</b>	<b>61.781</b>	<b>2,3</b>



1.7 taula KOOPERATIBEN KOPURUAREN BILAKAERA, DIMENTSIOAREN ARABERA (zifra absolutuak eta %). 2020-2022. (GEFK)

	Establezimenduak 2020	Establezimenduak 2022	Bilakaera 2020 - 2022
Gehienez 5 enplegu	1.325	1.447	9,2
6 eta 15 artean	294	386	31,3
16 eta 50 artean	213	193	-9,4
51 eta 100 artean	101	112	10,9
101 eta 200 artean	200	63	-68,5
201 eta 500 artean	136	252	85,3
500 enplegu baino gehiago	444	478	7,7
<b>GUZTIRA</b>	<b>2.713</b>	<b>2.931</b>	<b>8,0</b>

1.8 taula LAN ESTABLEZIMENDUEN KOPURUAREN BILAKAERA, DIMENTSIOAREN ARABERA (zifra absolutuak eta %). 2020-2022. (GEFK)

	Establezimenduak 2020	Establezimenduak 2022	Bilakaera 2020 - 2022
Gehienez 5 enplegu	390	369	-5,4
6 eta 15 artean	199	159	-20,1
16 eta 50 artean	64	70	9,4
51 eta 100 artean	40	45	12,5
101 eta 200 artean	5	6	20,0
201 eta 500 artean	1	1	0,0
500 enplegu baino gehiago	12	15	25,0
<b>GUZTIRA</b>	<b>711</b>	<b>665</b>	<b>-6,5</b>


1.9 taula EAE-KO GIZARTE EKONOMIAREN ETA EKONOMIAKO ESTABLEZIMENDU/ENPRESEN ENPLEGUAREN DIMENTSIOA, 2022. (GEFK)

	Establezimenduaren batez besteko tamaina	Enpresaren batez besteko neurria
Gizarte Ekonomia 2022	17,1	23,0
EAEko ekonomia 2022	5,6	6,2

Oharra: EAERI buruzko datuak Jarduera Ekonomikoen Direktoriotik hartutakoak dira. Eustat 2022

## 1.1.- GIZARTE EKONOMIAREN ARLOZ ARLOKO ENPLEGUA


